

# GABONAK 2022

Juan San Martin liburutegia
Irakurketa gida
Guía de lectura
Biblioteca Juan San Martin

EIBARKO UDALA
Juan San Martin Liburutegia
Biblioteca Juan San Martin




GABRIELLE VINCENT
Ernesto eta Zelestina
EGUBERRIAK ETXEAN
kalandraka
Pamiela


YA LEO A
CHARLES DICKENS
CANCIÓN DE NAVIDAD


Tres pequeños monos en Navidad
Siruela
Quentin Blake • Emma Chichester Clark


OLENTZERO
IPUINEN HERRIALDEAN
TESTUA
VIVIM DEL CUENTU
MARRAZKIAK
MAITANE BAUTISTA
IBAIZABAL
ZIRIMIRI
BILDUMA


Ole Könnecke
Antton eta
Eguberrietako oparia
ALBERDANIA


We Wish
You a Merry
Christmas
PRESS TO HEAR THE SONG


Olentzero, Antton
eta liburu magikoa
susaeta


J.K. ROWLING
EL
CERDITO
DE
NAVIDAD
Ilustraciones de
JIM FIELD


GABONETAKO
IPUINAK


Enid Blyton
LOS CINCO
LA NAVIDAD
DE LOS CINCO
A TODO COLOR













Gabonen inguruan proposamen gehiago /más propuestas sobre navidad

# Txiki txokoa



















<u>**Proposamen gehiago / más propuestas**</u>

# +5 urte




## Hiru Lehoi / Edu Zelaieta ; Txabi Arnal
## Elkar, 2022

Amonak Duniari mapa zahar bat emanez esan zion, mundu honetatik joan aurretik, bererarekin partekatu nahi zuela bere bizitzako sekreturik handiena. Amonak altxor bat gorde zuen berarekin urte luzeetan.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Itzal itzela / Leire Bilbao, Yolanda Mosquera.
## Ikaselkar, 2022

Hondartzara joaten denean, hondar epelaren zurrumurrua sentitzea gustatzen zaio Pauleri. Toallan etzan eta kalatxoriei begiratzea. Harean ezabatuko diren irudiak marraztea... Hondar azpian zerbait mugitzen sumatu duen arte. Geldi geratu da, harrituta, zer egin ez dakiela. Amonaren esaeraz gogoratu da orduan: beldurrari aurre.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




### Hortzik gabeko krokodiloa / Juan Clemente ; Christian Inaraja
### Ibaizabal, 2021

Krokodilo jatun bat bizi da Amalurreko ibaian, turistak jaten ditu guztiz oharkabean. Dentistari dio galdetu eta mesedez eskatu hortz-haginak ongi garbitzeko sekulako mina baitu! Eta a zer-nolako buila eta algara bere aho beldurgarria ikustean bertatik bertara!

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## La fuga / Cristina Oleby ; Pablo Pino
## Algar, 2022

Lanzar un cacahuete al aire, dar cinco vueltas sobre sí mismo, atrapar el cacahuete e introducirlo delicadamente en su boca. Durante 1.825 días seguidos, Narciso ha repetido el mismo número en el circo... ¡y ya no puede más! Ha decidido fugarse, pero los planes para conseguirlo no parecen salir bien. ¿Y si lo que le falta es, simplemente, un poco más de autoestima?

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**

# +5 urte




## Amaren bila / Alaine Agirre; Mar Ferrero
## Elkar, 2022

Jatekoaren bila joan zen Untxi Ama egun batean eta etxetik ez ateratzeko agindu zion Untxi Txikiri; baina zer uste duzu egin zuela orduan Untxi Txikik? Zulotik irten. Berehalakoan, haizeak haserre egin zuen putz eta etxetik urrutira eraman zuen.
Basoaren magia ezagutuko du Untxi Txikik amaren bila ari dela

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Kixkur : Pinttoren arreba / Iñigo Astiz; Mikel Valverde.
## Elkar, 2022

Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek Pintto, Pintto, gure txakurra da ta, Pintto, Pintto bere izena du bazuen arreba txiki bat Kixkur izenekoa. Hau da bere istorioa.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Mamuta ikusi dut! / Alex Wilmore
## Ibaizabal, 2022

Ongi etorri Antartikara. Hemen, pinguinoak ikertuko ditugu, zehatz eta zorrotz, esploratzaile ausarten talde baten eskutik. Pinguinoak hemen, pinguinoak han... Pinguinoak nonahi! Alabaina, halako batean, esploratzaile gazte batek zerbait oso bitxia ikusiko du. Zerbait ezohikoa, paregabea eta... ASPALDI DESAGERTUA. Baina inork ez dio sinesten. Eta zuk?

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Mel eta ehun goibel / Castillo Suarez; Morkots
## Denonartean, 2022

Elurra ausarki egiten zuen toki batean, bazen behin inuit bat Mel deitzen zena. Mel eta ehun goibel deitzen zuten denek, bere gaineko zerua goibeltzen zelako beti. Egun batean, elurra hasi zuen inoiz baino gogo handiagoarekin eta Melek pentsatu zuen iritsi zela joateko eguna. Bere puskak bildu, eta abiatu zen eguzkiaren atzetik eta elurra bezain isilik.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**

# +8 urte




## Zozo ergelak eta azeri gaiztoa / Txiliku
## Elkar, 2022

Behin batean, Xoxope eta Xoxopa izeneko zozo bik elkar ezagutu zuten lorategi batean. Erabaki zuten ereinotz hartan habia egitea. Lau zozokumeak jaio zirenean, oso pozik zeuden zozo-aita eta zozo-ama. Baina izugarria gertatu zen: herri hartan bazen azeri gaizto bat, Lukianton izenekoa. Munduko azeririk maltzurrena zen.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## 7G : udalekuak / Nerea Loiola Pikaza
## Erein, 2022

Liburu hau desberdina da. Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago. Zu zara protagonista.Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai!
Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu,

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Onin eta arimen gaua / Ibon Martín
## Travel bug, 2022

"Etxe sorgindu batean igaroko dugu Halloween gaua! Jantzi mozorroa eta zatoz. Primeran pasatuko dugu. Madame Galette zital horrek urteko festarik beldurgarriena zapuztu nahi digu bere trikimailu madarikatuekin. Ikusi duzu inoiz intsektuz beteriko bizkotxorik? Eta herensuge-muki likatsuzko tranparik? Galdu zara inoiz labirinto sorgindu batean? Ba hori guztia eta askoz gehiago eskainiko digu abentura honek. Ireki liburua, eta ikusiko duzu zenbat gauza gerta daitezkeen gau misteriotsu honetan."

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Txirolo / Maribel Aiertza ; Manu Ortega.
## Ibaizabal, 2022

Urko ez da etxe normal batean bizi; belaontzi batean bizi da gurasoekin. Pozez hartu zuen aldaketa, oporretan bezala biziko zelakoan beti. Baina eskolako mutil berriak, Aitzol harroputzak, zerbait jakin zuenean, iseka eta irain gerra gordina hasi zuen haren aurka. Denetik egin zion izorratzeko! Ezizen itsusi bat ere jarri zion: Txirolo. Eta horrek bai ematen ziola min

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**

# + 8 urte




**Galtzagorriak dabiltza etxean / Xabier Olaso, Manu Ortega**

**Ibaizabal, 2022**

Liburu honetan galtzagorri bihurri batzuek Xabi gazteari sekulako sorpresa emango diote, izan ere istorio batzuk idatziko dizkiote, berak batere espero ez dituen istorioak, alegia. Irudimena eta mitologia lantzeko obra ederra, umorez eta ilustrazio ederrez apaindua, sekulako gozatua hartuko dute irakurle gazteek.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




## Bisita / Bernardo Atxaga ; Mikel Valverde
## Pamiela, 2022

Zer egiten zuen Nelo honek? Nondik zetorren? Eta, batez ere, nora zihoan? Hori jakiteko, gure ahate heroiak espioi bihurtuko dira" ... Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi xamarrak. Haien gaiztakeriak irribarrez jarraituko ditu irakurle gazteak. Bi ahate bitxi! Bi harribitxi!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




## Itsasargiko misterioa / Lur Gallastegi
## Alai, 2022

Ba ote da ezer zirraragarriagorik lagunekin gaua etxetik kanpo ematea baino? Eta zeresanik ez, toki hori itsasargi bat baldin bada eta misterioz josia baldin badago. Abentura ikaragarria biziko dute Basakabiko lagunek, kostaldeko herri batean eta hainbat urtetan gordetako misterioa argituko dute. Umorea, laguntasuna, barre-algarak, baina ezustekoak ere kontatzen dira istorio honetan. Laguntasunak duen indarra argi geratuko da hasieratik bukaerara arte, ilargi beteko gau zoragarri batean, bizi izandako pasadizo honetan.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




## Marrubizko uda / Karmele Mitxelena
## Elkar, 2022

Maitek askotan pentsatzen du bere familia ez dela normala, etxean ez baitituzte, antza gaua normalak egiten. Oporretan esaterako, bere Berlingo urdinera igo, karabana zahar bati tiraka, herri galdu bateko kanpin batera joate besterik ez zaie gurasoei bururatu. Hori gutxi balitz, aita eta ama, iritsi orduko, txakurra eta katua bezala hasi dira. Banatzekotan daude. Maite halabeharrez dago gogotxartuta. Ustekabean, ordea, lagunak egingo ditu, eta bere egoera ez zaio horren aldrabesa irudituko.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

# + 8 urte komikia




## Iratxo txikia eta shatranj partida / Álvaro Ortiz
Asteberri, 2022

TIratxo gazte bat da Ayu, eta ustekabean agertuko da Aminaren eta haren aita sultanaren bizitzetan. Sultana gero eta penatuago dago ez duelako inor topatzen gehien maite duen jokoan aritzeko: shatranjean! Bi neskatilek, Ahmed laguntxoa ondoan dutela, oso urrunera bidaiatu beharko dute iratxo txikiaren hanka-sartze bat zuzentzen lagunduko dien iratxo bat topatzeko, Ayuk ez baitu magia behar den moduan menderatzen. Hona hemen Álvaro Ortizek umeentzat sortu duen lehen komikia, ekintzaz, lagunez eta barrez ondo hornitua.

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Arnasketa eta digestio aparatua/ Hot-Blooded Souls.
Ooso, 2022

Darwin doktorea koman sartzean, Jake eta besteak sendabide baten bila jartzen dira beranduegi izan baino lehen... Bennet doktorearen froga faseko Mikromediku robotikoak erabiliz Darwin doktorearen arnas eta digestio aparatuetan sartzen dira GORPUTZA KRISIAN egoteko arrazoiaren bila!
Erritmo azkarra, zirraragarria, ikusgarria eta... Zientzia!

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## El museo prehistórico / guión, Gomdori Co.
Montena, 2022

¿Qué harías si te quedaras encerrado en un museo? Aún más: ¿y si todo lo que hubiera dentro cobrara vida? El meteorito del almacén del Museo Prehistórico se ha roto y ha pasado algo increíble: ¡ahora todo tipo de criaturas andan sueltas! Mamuts y otros depredadores, hombres prehistóricos e incluso dinosaurios. Jio y sus amigos saben que acudir a la ciencia es la única manera de salvarse de este desastre y...¡Tal vez si recuerdan la comida favorita de los dinosaurios conseguirán no convertirse en su merienda!¿Lograrán salir con vida de este lío?

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**




## Memet / Noémie Marsily ; Isabella Cieli
A fin de cuentos, 2022

Es de noche, apenas puedes ver, no sabes cómo hacerlo, pero tendrás que montar la maldita tienda. Y así comienzan los placeres de la acampada para la pequeña Lucy y su hermana mayor. En pleno verano, las dos chicas se instalan durante unos días en un típico camping de la campiña francesa. Aquí están los habituales del caravanismo, franceses, holandeses e ingleses, confinados en sus rutinas de verano

**Erabilgarritasuna / Disponibilidad**

# +12 urte




## Kai handia / Uxue Juárez Gaztelu
## Erein, 2022

Itsasontziei eta itsasketari buruz dakidan guztia Lanbro Floaterrek erakutsi zidan. Hari zor diot, neurri handi batean, pirata bihurtu izana. Tira, hari, eta uretako biztanleei. Eta txikitan irakurtzen nuen azal gorriko liburuari. Orain, abiatzeko eguna iritsi zaidan honetan, korapiloa sentitzen dut urdailean. Hala ere, amaierako puntua abiapuntu ere izaten da, askotan. Nola begiratzen zaion. Kontakizun honetan azaltzen da nola, batzuetan, pertsonek, izan pirata nahiz ez, bat egiten duten eta sostengua ematen dioten elkarri, sortzeraino sare egoskor, sendo eta irmo bat, eta nola ni, Oona Langstrump, egin nintzen pirata.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




## El sol de tu vida / Marie Pavlenko
## Nocturna, 2022

Déborah comienza su último año de instituto sin zapatos: el perro callejero que ahora vive con ella parece muy interesado en destrozarle todos los que tiene. Para colmo, su madre ha empezado a comportarse de un modo muy extraño, su mejor amiga se ha distanciado y el chico que le gusta apenas se fija en su existencia. Pero lo peor llega cuando encima ve a su padre besándose con una desconocida.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad




## Cube Arts / Tomomi Usui
## Kabe, 2022

Manga euskaraz.Batxilergo 1. mailako ikaslea da Takuto. Halako egun batez, etxean jaso du Cube Arts izeneko jokoaren demo bertsioa. Beta test-erako aukeratua izan da! Errealitate birtualeko kaskoa jarri bezain laster, blokez egindako mundu amaigabe bat azaltzen da bere aurrean. Sandbox joko aske honetan, aukerak mugagabeak dira: mineralak bilatzea, eraikitzea, armak egitea, abeltzaintzan jardutea, ehiza egitea... edo borrokatzea.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



# Zorionak eta urte berri on!


Biblioteca Juan San Martin Liburutegia
Bista Eder, 10
20600 Eibar (Gipuzkoa)
tel: 943 708 437
liburutegia@eibar.eus


EIBARKO UDALA
Juan San Martin Liburutegia
Biblioteca Juan San Martin